

POLIOMIELITISA 3

SARRERA

Gaixotasun biriko akutua da, sarritan bere ezaugarriak behinena den paralisi flazido akutuarekin identifikatzen dena, baina bere agerpen klinikoak asko eta desberdinak dira. Agente infekziosoa Poliobirusa (Enterobirus generokoa) da, 1, 2 eta 3 tipokoa. 1 tipoak sorrarazten ditu gehien izurriteak, eta 2 eta 3 tipoek, berriz, txertoarekin lotutako kasu asko eta asko.

Diagnostikoa egiteko behar-beharrezkoa da agente etiologikoa isolatu eta identifikatzea. Erreserborioa gizakietan aurkitzen da eta transmisio-modua pertsonatik pertsonara egindako kutsapen edo kontagiaz egiten da, bide fekal-oralak erabiliz. Transmitigarritasun-aldia irazpen-aldiak irauten duen bitartean mantentzen da.

Inkubazio-aldia 6-20 egun bitartekoa da kasu paralitikoetan, izanik lerruna 3-35 egunekoa. Poliobirusarengatik infekzioak immunitate espezifikoa eragiten du, iraupen luzekoa.

Ahotiko polioaren kontrako txertoen erabilerak immunitate kolektiboko egoera bat sortu du mundu osoan, eta horrekin birus basatiaren zirkulazio librea eragotziz joan gara pixkanaka. Ahotiko Sabin motako txertoarekin (VPO) egindako poliomiELITISAREN kontrako txertaketa 1964. urtean hasi zen Estatu espainolean eta urte horietako txertaketa-estaldura altuek kasuak pixkana-pixkana murriztea lortu zuten. 1989tik aurrera ez da poliomiELITIS basatiaren kasurik jakinarazi. Gaixotasun hori desagertze-bidean dago eta Euskal Herrian ez da erregistratu birus basatiak eragindako poliomiELITIS-kasurik 1986. urtearen erdialdetik aurrera. 1997an ezarri zen paralisi flazido akutuen behaketarako programa bat, poliomiELITISA desagertu izanaren ziurtagiria lortzeko, OMEK ezarritako betebeharrak eta obligazioak betetzeko asmotan.

INDIKAZIOAK

Txertoen bidezko immunizazio aktiboa da poliomiELITISAREN kontrako prebentzio-neurririk eraginkorra.

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

Txertaketa sistematikoki egin behar da haur guztien kasuan, EAEn indarrean dagoen haur-txertaketako egutegiari jarraituz.

Salk motako poliomieltisaren kontrako txerto injektablea (VPI)

- Ume immunodeprimituen, tratamendu immunogutxizaillea hartzen ari diren edota pertsona immunodeprimituekin bizi diren umeen txertaketa sistematikoa.
- Ahotiko txertoa kontraindikaturia dagoen kasuetan.

Beren egoerak horretara behartzen dituen heldu ez-txertatuek ere txertatzea komenigarria izan daiteke, zona edo lurralde endemikoetara, edo epidemiararen bat duten lurraldeetara bidaiatzen badute adibidez, edo baita babes-ebidentziarik gabe (hau da antigorputzik eduki gabe) poliobirusak dituzten laginak manipulatu dituzten langileen kasuan.

ERAGINKORTASUNA ETA IMMUNOGENIZITATEA

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

Ahotiko txertoak (VOP) poliomieltisaren birus bizi indargabetuen 1, 2 eta 3 serotipoak dauzka, eta infekzio naturalak emango lukeenaren antzeko erantzun immunea eragiten du. Immunitate humoral eta lokal iraunkorra eragiten du hiru poliobirusen aurka, eta horren bidez eramaile asintomatikoaren egoera eta birus basatiaren zirkulazioa ebitatzen dira. Txerto-birusaren irazpenak, eginkarien bidez immunizazioa bideratzen du harreman intimoetan, eta horrela lehendik immunizatu gabe leudekeen pertsonak immunizatzea lortzen da. Hala ere, immunoeskasiaren bat tarteko egindako harremanetan infekzioa harrapatzeko arriskua dago.

Ahotiko txertoaren 4 dosirekin egindako txertaketa-sail osoak immunitate iraunkorra eragiten du, % 100ekoa ia 1 eta 2 poliobirusentzat, eta zertxobait txikiagoa 3 poliobirusentzat.

Salk motako poliomieltisaren kontrako txerto injektablea (VPI)

Immunitate iraunkorra eragiten du 1, 2 eta 3 poliobirus-moten kontra, eta txertatutako pertsona guztietan ia (% 100 inguru). VPIrekin txertatutako umetan lortutako erantzun immunitarioak eliminatu egiten du poliobirusaren eginkarietako irazpena, ahotiko txertoa hartu zutenekin konparatuz gero. Dena den, VPOk eragindakoa baino mukosetako immunitate txikiagoa eragiten du.

ADMINISTRAZIOA ETA TXERTAKETAKO PAUTAK

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

Txertoa aho bidez ematen da soilik, fabrikatzailearen aholku eta jarraibideen arabera. 15 minutuko epean umeak goraka egiten badu, berriro ere txertoa eman beharko litzaioke.

Lehen txertaketa osatzeko, umetan, hiru txerto-dosi ematen dira, 4-8 aste-ko tartea utziz batetik bestera. Hirugarrena hartu eta 12 hilabetera oroitzapene-ko dosi bat ematen da, eta beste bat laugarren dosia hartu eta handik 5 urtera.

EAEko haur-txertaketen egutegian ezarritako gaur egungo pautaren arabera 5 dosi dira: 2, 4, 6, 18 hilabete eta 6 urte.

Salk motako poliomieltisaren kontrako txerto injektablea (VPI)

Administrazio-bidea azalpeko edo muskulu-barnekoa izango da.

Txertaketa-pauta ahotiko txertoaren kasuan haurren lehen txertaketarako ezarritako berbera izango da.

Pertsona helduen kasuan, 4-8 asteko denbora-tartearekin banatutako bi dosi emango dira, eta hirugarren dosi bat, bigarrena jarri eta handik 6-8 hilabetera.

ESKURA DAUDEN TXERTOAK

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

Poliobirus indargetuaren hiru tipoak dauzka (1, 2 eta 3), proportzio berean gainera.

Horretaz gain, tximino-giltzurrunen ehunetan kultibatutako poliobirusen zepa indargetuak ere baditu.

Txertoaren dosi immunizatzaile bakoitzaren edukia ondorengoa da:

- 1 tipoko poliobirusa 10^6 DICT₅₀¹ baino gutxiago ez behintzat
- 2 tipoko poliobirusa 10^5 DICT₅₀ baino gutxiago ez behintzat
- 3 tipoko poliobirusa $10^{5.5}$ DICT₅₀ baino gutxiago ez behintzat

Antibiotikoen konposizioa aldatu egiten da, laborategi fabrikatzailearen arabera:

- B polimixina sulfatoa
- Neomizina
- Penizilina
- Estreptomizina
- Nistatina

<i>Txertoa</i>	<i>Izen komertziala</i>	<i>Laborategia</i>
Monobalentea	Vac. polio oral MEDEVA trivalente	Medeva
	Vac. polio oral WELLCOME trivalente	Gayoso Wellcome
	Vac. polio LLORENTE-EVANS	Evans Biologicos
	Vac. polio Sabin oral	GlaxoSmithKline

¹ DICT₅₀: inokulatutako ehun edo hazkuntza % 50 infektatzen duen mikroorganismoen dosia.

Salk motako poliomieltisaren kontrako txerto injektablea (VPI)

Formaldedehidoz inaktibatutako 1, 2, eta 3 tipoko antigeno poliomieltitikoak dauzka.

Estreptomizina dosi txikietan.

<i>Izen komertziala</i>	<i>Laborategia</i>
Vacuna polio parenteral BERNA	Berna

TXERTO KONBINATUAK, VPIrekin

<i>Txertoa</i>	<i>Izen komertziala</i>	<i>Laborategia</i>
DTPa-Hib-VPI	PENTAVAC	Aventis Pasteur MSD
DTPa-Hib-VPI-HB	HEXAVAC	Aventis Pasteur MSD
DTPa-HB-VPI+Hib	INFANRIX-IPV-Hib	GlaxoSmithKline
DTPa-Hib-VPI-HB	INFANRIX-HEXA	GlaxoSmithKline

KONTRAKO ERREAKZIOAK

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

Txertaketaren ondotik deskribatu izan dira zeinu inespezifikoak eta sintoma desberdinak (buruko mina, gorakoak eta beherakoak), baina ezin izan du frogatu horietako bakar bat ere txertoak eragina izan dela.

Gerta daiteke, baina oso salbuespen gisa, txertoari lotutako poliomieltis paralitikoa agertzea; normalean 2 edo 3 tipoko txertoaren poliobirusak sortua izaten da, eta askoz ere kasu arraragoetan 1 tipoko poliobirusak. Horrelakoak gertatzeko arriskua handiagoa da aurreneko eta bigarren dosiarekin, eta gutxituz doa ondorengo dosiekin.

- Lehenengo dosiaren ondotik hartzaileentzako arriskua kasu batekoa da emandako 1,4 milioi dosi bakoitzeko, eta kasu batekoa 28,9 milioi dosiko, ondorengo dosien ondotik. VPOrekin txertatukoaren kontaktuen edo harremanen artean kasu bat agertzen da 2,3 milioi dosi bakoitzeko lehenengo dosia administratu ondoren, eta kasu bat ondorengo dosien 17,3 milioi dosi eman eta gero.

Txerto-osteko paralisien agerpena dela-eta, oso arraroak eta bakanak izan arren, hainbat herrialdetan ahotiko txertoa txerta inaktibatuekin ordeztzea, haurren txerto-egutegian, erabat edota agian modu sekuentzialean.

Salk motako poliomieltisaren kontrako txerto injektablea (VPI)

Eragin edo efektu sekundarioen artean erreakzio lokal arinak aipa daitezke, batez ere injekzioa azalpeko ehunaren geruzarik azalenekoetan egiten baldin bada.

BESTE TXERTO BATZUEKIN BATERA ADMINISTRATZEA

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

Gaur egun indarrean dagoen haurren txertaketa-egutegiko edozein txertoekin batera eman daiteke; ez da txertoen artean inolako interakzio edo elkarre-ragirik sortzen eta txertoaren erantzuna ez da batere gutxitzen.

Salk motako poliomieltisaren kontrako txerto injektablea (VPI)

Gaur egun indarrean dagoen txertaketa-egutegiko gainerako txertoekin batera eman daiteke. Dena den, gaur egun arte daukagun informazioa oraindik ere mugatua denez, ez da gomendatzen C meningokokoaren kontrako txerto konju-gatua VPI duten txertoekin batera modu errutinarioan ematea. Badira merkatuan txerto konbinatuak, ziztada bakarrarekin aldi berean administratzen direnak.

KONTRAINDIKAZIOAK, ARRETA-NEURRIAK ETA INDIKAZIO BEREZIAK

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

- Immunogutxitzea:
 - Immunoeskasia, humoral edota zelularra, duten umeak. Izan daiteke immunoeskasia sortzetikoa edo hartua.
 - Tratamendu immunogutxitzailea hartzen ari diren umeak. Kortikosteroi-deekin egindako tratamenduaren kasuan, iraupen luzekoa edota dosi altuak erabiliz egindakoa denean.
 - Beren immunitate-sistema aldatua duten pertsonekin batera bizi diren haurrak, transmisio fekal-oralaren arriskuagatik.
 - Beherako akutu gogorra
 - Hipersentikortasuna, txertoaren osagaietakoren baten aurrean
- Kasu horietan guztietan txerto inaktibatua erabiliko da.

Ez da gomendatzen haurdunaldia bitartean poliomieltisaren kontrako aho-tiko txertorik ematea, aurreneko hiru hilekoan batez ere.

Salk motako poliomieltisaren kontrako txerto injektablea (VPI)

- Hipersentikortasuna, txertoaren osagaietakoren baten aurrean.

TXERTOAREN BILTEGIRATZEA ETA ERABILTZEKO MODUA

Sabin motako poliomieltisaren kontrako ahotiko txertoa (VPO)

Txertoa hozkailuan gorde behar da, +2 °C eta +8 °C bitarteko tenperatu-ran. Txertoaren potentziarik hobereana kontserbatzeko ahalik eta denbora gu-

txien eduki behar litzateke giro-tenperaturan, eta eguzki-izpietatik erabat alden-
du eta gorde behar da.

Txertoa eman aurretik, begirada bat bota behar zaio, ea partikularik ikus-
ten den bertan, edota ea kolore-aldaketarik sumatzen ote den ikusteko.

Salk motako poliomiELITISAREN kontrako txerto injektablea (VPI)

Hozkailuan eduki behar da, +2 °C eta +8 °C bitarteko tenperaturan, argitik
erabat babestuz.